


Orain dela gutxi elkarrizketa bengan interesgarria irakurri nuen ARGIAN (932. zenbakian): «SIADKO koekin elkar-hizketa». Traza guztientatik Inaki Larrañaga zen kazetariaren solaskidea.

Bost orrialde luze dira, zein baino zein argigarriagoak, euskararen egoera soziolinguistikoaz. Ez duela beste munduko gauzarik esaten? Ez, agian, baina jakintza, teknika, erreflexioa, maitasuna eta zentzu arrunta elkar-tzen direnean, mila ohar, perspektiba eta gogoeta sortarazten dizkizu, eta hauxe dateke solasaldi honen lehen meritua.

Normalizazioaz ari da gehienbat I. Larrañaga. Bere gaia du oso. Nere oraingo kezketatik begiratuta, nik erreparatu dudana kontzeptu hau da: euskararen erabilpenaren dinamika. Kontzeptuaren muntagatik beragatik eta gure errealitatearen eskasiagatik. Zeren eta, euskarari, egun, erabilpena eta dinamika, biak falta zaizkiola-koan nago. Tremendista izan gabe. Zein urruti gauden gure hizkuntzaren gizarte-normalizaziotik, eta garai batetan amestu genuen Euskal Herri euskaldundu hartatik! Akabo optimismoak!

Ametsak amets, usteak uste, asmoak asmo. Baina... proiektuak proiektu? Plangintzak beti plangintza? Proiektuaren eta plangintzaren bokazioa lehenbailehen errealitate bilakatzeta da. Siadeco-k burutu zuen plangintzak (1978), ordea, gaur egoera berean jarraitzen du, plangintza gisa. Plangintza bera ez bada ere, han egindako prebisioak bete ote dira? «Hizkuntz Plangintz batetarako oinarriak» deitu lanean, 1975eko datuak maneiatzen ditu Siadeco-k, lana bera 1978an burutzen du eta 1985 hartzen du hipotesien frogaurtemuga bezala. Hizkuntzaren hazkuntza prebisibleaz hiru hipotesi horietatik, minimoa, pesimistena, eskasena bete ote da, gero? Oraindik ez da 1985, eta, gainera, azterketa bat beharko litzateke, baina... Bilakaerari antzemateko puntuxo bat aipatuko dut: ARGIA aldizkarian gaudenez, ikus dezagun aldizkariaren irakurleriari dago-kiokkeen hazkuntza.

1975ean euskal aldizkariaren irakur-leria 111.118 bazen, 1985ean honela dateke: hipotesi minimoan, 1,31 aldiz gehiago (145.806); erdiko hipotesian, 2,66 aldiz gehiago (295.625); eta hipotesirik altuenean, 4,34 aldiz gehiago (482.378). Gaurko martxan,



## EUSKARAREN ERABILPEN DINAMIKA

(politikoen  
erantzun  
beharrak)

482.378 hori amets urdina da. Ez gara iritsiko ezta erdiko hipotesira ere, milagrorik ez bada.

Zerk huts egin digu hemen? Oinarriak, oinarriak.

Ez dugu lortu euskararen erabilpenaren dinamizarik. Nola lortuko, baina, dirudienez ez bait dugu argi, garbi, euskararen lekua bera, hots, euskara dela gure hizkuntza propioa eta nazionala? I. Larrañagak oso

ongi seinalaten duenez, euskara gure gizartean eskubide indibidual bat da, ez besterik, opzio pertsonala. Baina ez herri eskubide kolektiboa. Pentsaera hau itzulipurdikatzen ez dugun bitartean, jai du euskarak.

Eta gero erabaki politikoak daude. Euskararen dinamikarako ez dira nahiko, baina bai beharrezko. Erabaki politikoak, esan nahi bait da, Hizkuntz Plangintza orokorra. Hori Gobernari dagokio. Plangintza horren oinarriak aspaldi dela jarri zituen Siadeco-k. Inortxok ere ez zion jaramonik egin. Badirudi, azkenik orain, Hizkuntz Aholku-Batzordeak oratu behar diola arazoari. Baina ez du hango filosofiarik eta izpiriturik jasozten.

Arrazoiak, hauek edo beste batzuk direla ere, hemen kuestioa da, herri-giroa ez dugula euskaldundu. (Ez naiz, noski, euskalgetiaz ari). Erlatiboki orain urte batzu baino ere erdaldunagoa dela esango du zenbait-tek. Giroa epeldu egin da, ez euskaldundu. Euskararen dinamika moteldu: ez du lur eta jende berririk irabazten, bereganatzen. Ez du inor lilurazten, urrutiko linguistaren bat salbu.

Zein da egoera horren aurrean gure jokaera? «Euskara ikasi nahi duenari, aukera eman»: hona gure ausardia noraino heltzen den. Gaitz handiegi honentzat, erremedio eskasa. Tantaka-tantaka ari gara jendea gureganatzen, euskalduntzen. Astiroegi. Bien bitartean, egunetik egunera ingurunea erdaldunagotzen: arrotz zaio askori euskara, hizkuntza bezala bakarrik ezezik, arazo bezala ere bai. Komentzi gaitzen: martxa honetan, abiada honekin, gutxi barru, euskara eta beronen planteo soziolinguistikoa lau katu radikalaren monopolio izango da.

Euskararen erabilpenaren normalizazioak kanpaina masibo eta etengabeak eskatzen ditu, dinamikoak. Zertarako? Euskal Herri osoa euskararen alde aktiboki jartzeko, jendea girtzeko, sentsibilizatzeke, erakartzeke, kontzientziarazteke. Euskara aurrera ateratzea nahi badugu, gizarte-dinamika, kultur erakarmena, integrazio-dinamika eman behar dizkio-gu euskarari.

Euskarak gaur lanak ditu bere bu-ruaren superbibentziarekin. Legeek bereaiek aitortzen dioten lekurik ere ez du eta. Lekutan dago euskararen erabilpen dinamika, bizi ahal izateko, irauteko, nahitaezkoa duena.